



# Museo eta dorretxeen ibilbidea

Aiara – Artziniega



*Euskadi, auzolana, bien común*



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**



**AIARALDEA**  
HELMUGA PAISAIA DA  
EL DESTINO ES EL PAISAJE

**araba álava**  
foru aldundia diputación foral

Lehentasunezko jarduketara eremuak, Eusko Jaurlaritzaren finantzaketarekin  
Zonas de Actuación Preferente con la financiación de Gobierno Vasco

**Aiaraldea eta Nerbiogoiena lurraldeek  
aberastasun historikoa eta edertasun  
naturala modu paregabean uztartzen ditu.**

Ilbilde honek inguruko ondare kulturala ezagutzera gonbidatzen zaitu. Bertako dorretxe bikainak ezagutuko dituzu, Erdi Aroan izandako botere- eta defentsa-historiak kontatzen dituzten egiazko altxor arkitektonikoak, bai eta bertako museoen sarea ere, tradizio, arte eta zapore paregabeak bildu eta zabaltzen dituztenak. Familia leinargien eguneroko bizitzarekin hasi eta estilo artistikoen bilakaerarekin eta tokiko likorearen esentziarekin buka, iraganari begiratzeko leihoa da geldialdi bakoitza, orainarekin konektatzen duena. Murgil zaitez bidaia honetan eta liluratuta utziko zaitu Nerbiogoiena paregabe egiten duen ondareak!



Museoa



Dorretxea



Aiara - Artziniega



Urduña - Amurrio - Laudio



Urduña/Orduña

Amurrio

Artziniega

Laudio/Llodio

Orozko

# 1 Santxotena Tailer-Museoa



Barrataguren auzoa –ARTZINIEGA–  
[www.santxotena.org](http://www.santxotena.org)



Bisita  
gidatuak



Irisgarria



Parking



**S**antxotena Tailer-Museoak Santxotena eskultorearen (Oteizaren ikaslea) lana biltzeaz gain, artistak bere sortze-lanak egiten dituen tailerra erakusten digu. Tailer-museo hau gaur egungo artegunea da, arkaikoan ere errotua. Santxotenenaren piezez gain, aldi baterako eremuak eta erakusketak ere baditu, eta esperientzia ezberdina sortuko dizute bertara joaten zaren bakoitzean.



Xabier Santxotena eskultoreak berak egingo dizu harrera eta eskultura bat egiteko prozesu osoa azalduko dizu. Bisitan beti sortzen da galdera hau: nortzuk dira agotak? Xabier agota baita.

## ② Mendieta dorrea



**M**endieta dorrea eraikin liluragarria da, eta defentsa-dorre baten elementuak ageri ditu bizitegi-jauregi baten ezaugarriekin batera. Alde batetik, hainbat xehetasun ditu, hala nola kanoi-zuloak eta garitoiak, bere funtzio militarra gogora ekartzen digutenak, baina kasu honetan prestigioaren sinbolo dira benetako defentsaren sinbolo baino gehiago. Bestetik, leiho dinteldun handiak eta armarria ditu, eta bizitegi-itxura ematen diote horiek, itxura dotorea. Dorreko benetako protagonista Mendieta familiaren armarria da, XVI. mendekoa, eta familiaren historiaren eta nobleziaren lekuko gisa nabarmentzen da.

— Mendieta entitatea —ARTZINIEGA—

XVII. mendera arte ez da dokumentuetan ageri Felipe de Doyega jauna eta Casilda de Berganza andrea zirela jabeak, haiek 1624an hipotekatu baitzituzten bizi ziren etxea eta dorrea. 1654an erre egin zen eraikinaren gehiena.



Sarbidea  
oinez



Ibilbideak



Museoak  
hurbil



Haurren  
jolastokia



Barbakoak



# Artziniegako Eleiz Museoa 3

**A**rteko Andre Mariaren Arte Sakratuaren Museoan interes artistiko handiko pieza erlijioso baliotsuak daude, bai museoan, bai santutegian. Bere altxor nagusien artean, estilo gotiko-flandiarreko erretaula nagusi bikaina dago, bai eta XVI. mendeko Azken Judizioko pinturak eta ganga apaintzen dutenak ere.



Arteko Aldapa, 2 –ARTZINIEGA–



Parking



Eliza



Museoan Ama Birjinaren eta Jesus haurraren tailu bat dago, zur polikromatuz egina, Euskal Herriko irudirik zaharrenetako bat, hain zuzen ere.

# La Cámara Orive-Salazar dorrea 4

**L**a Cámara dorrea XVI. mendearen amaieran eraiki zuten Lope de la Camara jaunak eta Ana de Orive Salazar andreak, eta haiek eman zuten bertako eliza eraikitzeko agindua ere. 1723an, Aiarako aktetan jasotakoaren arabera, José Melchor de Molinillo Velasco y la Cámara, Artziniegako bizilaguna, zen dorrearen eta ondoko etxearen jabea, Aiara eta Artziniega artean banatua

zegoena, eta maizter bat zuen zati bakoitzean. Izan ere, Soxoguti, dorrea dagoen herria, herri “zatitua” zen: zati bat Aiarako Eskualdekoa zen eta bestea, berriz, Artziniegakoa, eta, ondorioz, bi kontzeju ezberdinen artean banatua zegoen parrokia. Gotorlekua eraiki zuen leinu berak eskatu zuen dorretik gertu dagoen eliza eraikitzeko ere, eta horrek historia eta tradizio kutsua eransten dio leku berezi honi.



Soxoguti entitatea –ARTZINIEGA–


XIX. mendearen bigarren erdialdean izan zen suteak eraginda, dorre honen harlandu batzuk desagertu eta beste batzuk hautsi egin ziren, bai eta hormetan arrakalak sortu ere, eta dorrearen barrualdea erabat hondatua geratu zen ondorioz. Sarreran harlandurik ez egotea, ordea, espoliazioaren ondorioa da.



Sarbidea  
oinez



Eliza



## 5 Los Molinillo de Velasco dorretxea



**D**orre hau 1592an eraiki zuten Diego Ortiz de Molinillo Velasco jaunak eta María Tomasina de La Cámara andreak, ustez Soxogutiko beren dorretxeak su hartu ondoren. I. Karlistaldian liberalek zein karlistek erabili zuten, eta 1836an gotortu egin zuten Jose Maria Agirre komandante karlistaren mandatuz.

Dorrearen bigarren solairuan balkoi bat dago ateburuarekin, eta haxe dio bertan ageri den inskripzioak: “No digas lo que supieres ni hagas lo que vieres”. Ateburuaren alde banatan, bi armari daude: ezkerrekoak, arrano bat hegoak zabaldua eta Velascotarren bero irudiak ditu, kasket bat guztiaren gainean eta lehoiak inguruan. Eskuineko armarriak ere arrano bat du kasket baten azpian, baina oraingoan ziklopeen bi irudi ditu lagun. Xehetasun horiek, balkoia apaintzeaz gain, leku honen historiari eta bertatik igaro ziren leinuei buruzko arrastoak ere ematen dizkigute.

Dorreko Aldapa kalea —ARTZINIEGA—



Sarbidea  
oinez



Tabernak



Frontoia



Bolatoki  
zaharra



Museoak  
hurbil



# Bengoa dorretxea 6

**B**engoa dorretxea Artekalen dago, eta alde zaharreko eraikin zaharrenetako bat da, xv. mendekoa. Erdi Aroko hiri-dorreetan ohikoak diren hainbat elementu baditu ere, zenbait adituren ustez, gotorleku bat baino gehiago, bizitegi-jauregi baten funtzioa izango zuen. Dorrearen aipamena 1640an ageri da lehen aldiz dokumentuetan, Martin de Bengoa jaunak, bere jabeak, testamentuan sartu zuenean, Agustindarren komentuan sortutako kapera batekin loturik.



Gaur egun etxebizitza-eraikina bada ere, xv. mendeko familia-armarria kontserbatu du, nahiko berezia. Ohiko diseinua izan beharrean, armariak bi otso eta bi giltza gurutzatu ditu, eta horrek berdingabe egiten du. Gainera,

dorretxeko leihoek dituzten arkuak xehetasun finez apainduak dira, lerro ebaki modukoekin, eta dorretxea zein antzinakoa den eta denboran zehar zein ondo zaindua izan den erakusten digute horiek. Xehetasun horiei begiratze hutsarekin dorreak bere historiaz hitz egiten digula ematen du!

Artekale kalea –ARTZINIEGA–



Sarbidea  
oinez



Hirigunea



Tabernak



Frontoia



Bolatoki  
zaharra



Museoak  
hurbil



## 7 Artziniegako Museo Etnografikoa



Arteko Aldapa, 12 –ARTZINIEGA–  
[www.artziniegamuseoa.eus](http://www.artziniegamuseoa.eus)



Bisita  
gidatuak



Irisgarria



Parking





Artziniegako Museo Etnografikoa Arabako landa-bizitza tradizionalen oinarritzen da, eta nekazaritza, abeltzaintza eta eguneroko bizitza ditu ardatz. Bertan, iraganeko objektuak eta tresnak daude ikusgai, inguruko biztanleen ohiturak, lanbideak eta bizimodua islatzen dituztenak. Museoak, Artziniegako ondare materiala gordetzeaz gain, hezkuntza-esperientzia aberatsa eskaintzen du landako Euskal Herriko ohiturei eta bizimoduari buruz.



Areto guztiak erabil daitezke aipatutako helburu tematiko horietarako. Baserriko sukalde bat eta antzinako eskola bat ditu ikusgai, eta iraganean murgiltzeko eta Artziniegako eta inguruetako biztanleak iraganean nola bizi ziren esperimentatzeko aukera ematen diote bisitariari.



## 8 Kexaako Monumentu Multzoa

Kontsultatu bisiten egutegia




• Kexaa entitatea —AIARA—



Parking



Bisita  
gidatuak



**K**exaan, Ayalatarren orubea dagoen tokia ez zuten ez ausaz aukeratu. Gune estrategiko batean dago, antzinako bideen elkargunean, Gaztelatik zetozenak eta Bizkaiko Enkarterriekin eta Kantabriako kostaldearekin bat egiten zutenak. Kexaa 1095. urtean existitzen zela baieztatzen dute hainbat dokumentuk, aiararren eta Pedro Nazar Naiarako apezpikuaren arteko akordio batean aipatzen baita. 1378an, Fernán Pérez de Ayalak San Juan komentua sortu zuen Santo Domingo ordenako mojenzat, eta 1399an, haren semeak, kantzilerrak, Virgen del Cabelloko kapera sortu zuen, eta mojei dohaintza eskuzabala egin zien 1385ean Aljubarrotan izandako porrotaren ondoren espetxetik aske utzi zutenean. 1566an, sute batek suntsitu zuen komentua, baina, zorionez, suak ez zituen multzoko gainerako eraikinak kaltetu.



2023an erosi zenetik, Arabako Foru Aldundiarena da Kexaako Monumentu Multzoa. Kultura Ondasun Kalifikatua da, eta ondare zibil eta noblearen adibide gisa baloratua dago bere diseinuagatik eta kontserbazioagatik



Kantzilerraren eta bere familiaren ehorzlekua da kaperara, eta hainbat artelaren (arkitektura, eskultura, pintura eta urregintza) integrazio gisa sortu zen, ideia bakar batekin: sortzaileen hilezkortasun-nahia. Kantzilerraren eta Leonor de Guzmanen hilobia alabastroz egina da Ferrand Gonzalezek Toledon zuen tallerrean. Hildakoak idealizatuta eta formalki eskematizatuta daude. Gizona militarrez jantzia dago eta emakumea, berriz, soineko eta bitxi garestiz apaindua. Biek txakurrak dituzte ondoan, senar-emazteen leialtasunaren sinboloak. Basamentuak medailoiak ditu santuen eta profeten irudiekin. Jatorrizko erretaula 1396koa da. Bertan, Jesusen eta Ama Birjinaren bizitzako eszenak ageri dira eta, gainera, hiru belaunaldi daude erretratatuta: kantzilerra eta emaztea, seme-alabak eta bilobak. Inskripzio bat eta familiaren armarioak ikus daitezke obran. Chicagoko Art Institute eraikinean dago gaur egun. Kaperan 1959ko erreplika bat dago ikusgai.

## 9 Murga dorrea

Erreserba eginda bakarrik bisita daiteke



**M**urga dorrea XIV. mendearen erdialdean eraiki zuten, lurraldea eta bere baliabideak kontrolatzeko. Hori nabari da bere diseinuan, helburu estrategikoagoa baitzuen. XVI. mendean jauregia eraiki zutenean, dorrea ez zuten harekin lotu, egin ohi zen bezala; aitzitik, bi eraikinak modu independentean existitu ziren, eta Erdi Aroko dorrea XVI. mendeko jauregiak inguratu zuen, eraikinaren egungo irudia osatuz. Hala eta guztiz ere, kanpoko itxura ez zen ia aldatu, eta jatorrizko egituraren esentziari eutsi zion.

Beste jabe batzuen artean, Murgako dorrea José María de Murga euskal esploratzaile ospetsuarena izan zen, El Moro Vizcaíno izenez ezagunagoa eta Bizkaiko Ahalduen Nagusi ere izan zena.

Murga entitatea –AIARA–



Parking  
pribatua



Bisita  
gidatuak

